

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure erakundeko bazkide eta hornitzaile nagusiak gu eta bertan lan egingo dugunak izango gara. Gure erakundea ezagutarazteko, ikastola eta ikastetxe batzuekin aliatuko gara bertako haurrak ere gure erakundera etor ahal izateko.

Bazkide bakoitzak bere funtsezko baliabideekin batera egingo dugu lan, hau da, batzuk web gunea sortzen, editatzen... beste batzuk hurrekin egingo dute lan eta besteak erakundeak eskeintzen dituen beste hainbat zerbitzuetan, esaterako, erakundearen bertan egongo den dendan.

Gure zerbitzuak online zein prezentzial bidez eskeiniko ditugunez, baliabide desberdinak eduki beharko ditugu eta horrekin batera hainbat bazkide desberdin, esaterako, bertako langileak. Horretaz gain, denda txiki bat egongo da ere, gure produktuak saltzeko, beraz kasu horretan salmentetarako errastazuna duten bazkideak, bertako langileak, erakundearen parte horretan egingo zuten lan.

Horretaz gain, eskaintzen ditugun zerbitzuak, erakundearen funtzionamendu egokirako beharrezkoak dira. Hau da, gure erakundeak hainbat zerbitzu desberdin eskaintzen dituenez (produktuen denda, hurrekin hitzorduak...), langile desberdinak egongo dira eta bakoitza bere gaitasunen eta ikasketen arabera postu batean edo bestean kokatuko da.

Alde batetik, web gunea eguneratzeko eta bertatik hitzorduak edukitzeko, teknologian trebetasuna duten langileak arituko dira. Batzuk online diren hitzorduekin egongo dira eta beste batzuk web gunea berritzen eta eguneratzen. Gainera, gure dendako produktuak fisikoan eta online bidez eskuragarri egongo direnez, langile batzuk denda fisikoaz eta onlinetaz arduratuko dira.

Beste alde batetik, presentzial izango diren hitzorduetaz arduratzeko ere beste langilerenbat egongo da.

Azkenik, harrera-lekuan, hau da, erakundearen sarreran, pertsona bat edo bi egongo dira gure bezeroei arreta, laguntza eta informazioa emateko.

